

2023ko OLINPIADA FILOSOFIKOA -IRUZKINA

“MUGEN ERAISTE NEURTUA” 78999683L

Muga hitza hain da poliedrikoa non zaila den kontzeptua definizio bakarrera mugatzea. Beste askoren artean, muga naturalak (plaken tektonikak eragindakoak...) eta pentsamenduari Kanten adierazpen askatasuna deuseztatuz jartzen zaizkionak ditugu. Hala ere, gaurkoan “Imagine”en akordeak, baina batez ere bere hitzak buruan izanda, herrialdeen muga politiko-administratiboez arituko gara. Hain kanta simple eta eder batek ez du inoiz hainbesteko fideltasunez islatu mugimendu baten esentzia. Zalantza izpirik gabe, egi unibertsal ukaezina hobekien adierazten duen letretako bat da hau: mugarik gabeko mundua mundu hobea izango litzatekeela.

Estatua, giza talde batek lurralde baten gainean duen kudeaketa-modu moderno gisa, mugako kontrolean oinarritzen da, eta hori desiragarria da soilik bizikidetzatza modu baketsuan arautzen laguntzen badu. Mugak demografia-joan-etorrirako horma gaindiezin gisa erabiltzen direnean, ordea, edo munduaren zati batek (gaur egun Ipar-mendebaldea) beste zati baten (hego-ekialdearen) garapenari galga jartzen jarraitzeko aitzakia gisa erabiltzen direnean, hauek intelektualki eraisteko beharra sortzen da. Muga administratiboak berdintasun ezaren sortzaile dira eta Hegelsen jopu eta esklaboaren dialektikaren adibide argienak bilakatu daitezke (psikologiaren esparruan proposatu zituen arren). Europak, garatzeko, Afrika azpigaratu zuen. Horren adierazle nabarmenena munduko mapa geografiko-politiko (kontuz, ez orografikoa) da. Gure asmakizuna ere den jainko ahalguztidunaren rola eurenganatu zuten europar estatuek, eskuaira eta kartaboiarekin haien berdinak zirenen bizitzak, muga ez natural, ez berezko eta ez bidezkoen bidez gartzelatuz.

Mugen jatorri ez-naturalaren ildoari tiraka, aurrekoan nire aititearen abereengan antzemandako adibidea aurkeztuko dut. Ardietako bat, auzokoaren zelaian sartu eta bertoko belarra jaten hasi zen. Anekdotatza inozo hutsean geratu izan zitekeen hori, hausnarketarako abagunea eskaini zidan. Animaliek ez dute lurraren baliabide naturalak ustiaketa individual pribaturako mugatzen dituzten mugen kontzientziarik. Txoriak libreki egiten dute hegan AEBak Mexikotik banatzen dituen murruren gainetik, Han ibaia Ipar Korea zein Hego Korea zeharkatzen ditu eta Mediterraneoak Afrikako zein Europako kostaldeak miazkatzen ditu izenik gabeko itsasertzak direla sinistuz. Funtsean, jaberik gabeko lurak direlako, edo izan beharko liratekeelako.

Premisa honi jarraika, imajinatu dezagun ez dagoela herrialderik. Beatlesen abeslariaren ahots liluragarriak zaila ez dela esaten digu, baina ez al da konplikatu gaur eguneko sistemaren barnean mugarik gabeko mundua irudikatzea? Gure bizitzak gidatzen dituen kapitalismoak mugak ezinbestekoak ditu bizirauteko. Adam Smithen esku ikusezinak diruaren makinariari eragiten jarrai diezaion, merkatuari erabateko askatasuna ematen bazaio ere (globalizazio ekonomikoa), aurretik aipatutako herrialde azpigaratu eta garatuen arteko mugak beharrezkoak zaizkio. Estatu pobreetako proletarioen bizitzak Ipar Amerikako eta Europako herrialde boteretsuen behar burgesen menpe egotera kondenatu ditugu. Egongo ez balira, ezinezkoa litzateke billeteez adreilututako murrueen barnean bizi direnen bizi-mailari eustea. Mugarik ez edukitzeak, sistemaren egitura berriztuko luke eta dirua beste plano batean kokatuko lukeelakoan nago. Kasu horretan, Onok eta Lenonek esan bezala, ez genuke ez gutziarik ez goserik izango.

Karl Marx filosofo komunistak idatzitako *El Capital* liburuan, kapitalismoaren hastapenak definitzen dituenean, hau garatzeko espazio itxi baten beharra egon zela azpimarratzen du (horregatik hasieran Mediterraneoko lurraldeetan ez zuen aurrera egin). Itxidura hauek, baina, zirkulazio paradoxa bat aurkezten digute. Merkatuan mugarik gabeko mundu bat lortzearen aldeko pausuak ematen ari garen bitartean, pertsonen mugimendua gero eta modu hertsiago eta bortitzago batean mugatzen ari gara. Teleberria piztea besterik ez dugu nazionalismoen defentsaren izenean, -benetan Ursula K. Le Guinen *Omelas* hiri perfektua bere horretan mantentzeko aitzakia baino ez dena- egiten ari diren sarraskien testigu izateko. Nor gara gu "gurera" nor sartzen den erabakitzeko? Gure ikurrinak orbangabe mantentzeko eskuak odolez zikintzeko prest al gaude? Ez lukete murrueen eta hesien apologia egiten dutenek mugarik gabeko mundu bat nahiko inmigranteen azalean jaio izan balira?

Teleberria ikusten jarraituko bagenu, Ukraina eta Errusiaren arteko gudaren berriak agertuko litzazkiguke segituan. Gerra honen atzean, Historiako gerretan bezala, boterea, erlijioa eta nazioa, finean, mugak, ezkututzen dira. "Nire mugatik gertu ez dut etsaien indar militarrik nahi". "Nire herrialdean indarrez sartu dira". Nire mugak, nire herrialdea, gizakiaren berekoitasuna. Lur arra bat gehiagoren truk zenbat arima eraildu. Zenbat bizitza urratu balen plomuan urtuta. Ez bagenu izango besteak etsaitzat ikusaraziko liguketen horma iraganezinik, desmilitarizazioaren zentzua ezustean ulertuko lukete bulego obaletako buruzagiek. Erraza izango litzateke orduan hiltzeko edo hil egiteko arrazoirik gabeko mundua ez hain errealitate utopiko bezala imajinatzea. Jende guztia bakean bizitzen.

Giza anaitasuna, pentsa zitekeenaren kontrara, ez da kulturaren homogeneizazioaren sinonimoa. Gizaki kosmopolita eta erroak zein testuinguru kultural propioa dituen gizakiak bateragarriak direlakoan nago. Mugen desagertzearen eskutik pentsamenduaren irekiera dator, bestearekiko enpatia eta errespetua. Bestea errespetatzeak, aniztasun kulturalaren aberastasuna zaintzeaz gain hau areagotuko luke. Albokoaren ohiturak eta mundu ikuskeran onartzean, gurekiko desberdina dena mesfidantzaz hauteman baino jakin-minez ikusiko genuke. Inork ez luke izango kultura hegemoniko batetara ahokatzeko beharra.

Aurkeztutako guztia belarrirentzako ezta den arren, teoritik praktikara igarotzerakoan ezinbestean sortzen dira hainbat galdera garrantzitsu. Nola kudeatu mugarik gabeko mundu bat? Zein izan beharko litzateke Estatuaren hautabidea? Mugak desagerrarazi beharko liratekeela diogunean, pertsonen lekualdaketa askea eta jendartearen atal baten joputza dakarten mugez (muru garaiezinez) ari gara. Testuaren hasieran adierazitako legez, bizikidetzak baketsua bermatuko luketen mugak onargarriak eta apika beharrezkoak dira. Muga malguez uztartutako nazioen federazioa dator kit burura bizitza arautzeko organu gisa, Nazio Batuen Erakundearen oinarrituta.

Nazio-gaindikoa erakundearen kaleratutako Giza Eskubideen Aldarrikapenean, "pertsona orok libreki mugitzeko eskubidea, eta estatu bateko lurraldean bizitokia aukeratzekoa" duela zehazten da. *Mugak zabaldu* abestiaren bideoklipetan giza eskubideak obeditzeko sistema desobeditzen dugula esaten da eta ezin nintekeen adosago egon. Gaiaren jorriketa harilkatu duen musikara berriz joko dut. Bad Sounden *Muros y Fronteras* abestia, zeinetan mugen definizio hau ematen da; "gorrotoa eta suntsipena sortzen dute, erlijioaren, eskualdearen eta kolorearen arabera banatzen gaituzte". Anarik bere abestietako batean *Ametsen eraiste neurtuaz* hitz egiten digu. Nik hurrengokoa proposatzen dizuet, kantatu ez arren; ametsak deseraiki beharrean, ezagutzen ditugun mugak eraiste eta hauek gabeko errealitate bat amesten jarraitzea mundua bakarria izan arte.